

URAK (laburpena)

Ibaiekin lotutako kontzeptuak. Aukeratu termino egokia beheko taulatik.

- Ibai batek daraman ur kantitatea: (1).....
- Euria egiten duenean soilik eramaten dute ura: (2).....
- Ibaia jaiotzen den tokia: (3).....
- Euri-jasen edota elurra urtzearen ondorioz ibai baten emariak bat-batean gora egitean sortzen da: (4).....
- Ibai baten emari txikiena: (5).....
- Ibai baten ibilbidearen amaiera: (6).....
- Gutxi aldatzen den emaria: (7).....

1	ibilgua	arroa	emaria
2	agorraldiak	huri-bideak	estuarioak
3	sorburua	bokalea	uadia
4	uharra	uholdea	uadia
5	uadia	agorraldiak	huri-bideak
6	bokalea	delta	estuarioa
7	gehieneko emaria	emari erregularra	emari irregularra

Hutsuneak bete:

Urak bi taldetan banatzen dira: (8)..... urak eta kontinenteetako urak.

Azken horiek azaleko urak eta (9)..... izeneko beste bi multzotan sailkatzen dira.

(10)..... deritzo (11)..... izeneko lur-eremu batean zehar doan (12)..... ur-lasterrari.



Ibaia sortzen den lekuari (13)..... esaten zaio. Ibaia amaitzen den lekuari, berriz, (14)..... . Ibai batek egiten duen bideari (15)..... deritzo.

Bere urak beste ibai batera isurtzen dituen ibaiak (16)..... izena jasotzen du. Ibai nagusiak eta horren ibaiadar guztiek hartzen duten lur-eremuari (17)..... esaten zaio.

Ibai baten ibilbidean hiru zati bereizten dira:

(18)..... : sorburua eta ibilbidearen lehen kilometroak hartzen ditu.

(19)..... : malda txikiagoko lur-eremuak zeharkatzen ditu; bidean,

(20)..... sortzen dira.

(21)..... : (22)..... handiagoa du,

(23)..... urak ere biltzen baititu.

Ibai batek daraman ur kantitateari (24)..... deritzo. Kantitate hori bat-batean areagotzen bada, (25)..... sor daitezke. Ibai baten emari txikienari, aldiz, (26)..... deritzo.

(27)..... kontinente barruko lur-eremuetan sortzen diren ur multzo iraunkorrak dira. Txikia baldin bada (28)..... esaten zaio, eta ur gazia izanez gero, berriz, (29)..... . Agorraldian, urmaelak ia guztiz lehortzen direnean, (30)..... eratzen dira.

(31)..... esaten zaie gainazalaren azpitik joaten diren urei. Ura poltsetan pilatzen denean, (32)..... sortzen dira, eta (33)..... eraikitzen ditugu ur-erreserba horiek ateratzeko.

(34)..... ozeanoetan dabiltzan ur-masa handiak dira. Itsas uren beste mugimendu batzuk (35)..... eta (36)..... dira, hau da, itsas-mailaren igoerak eta jaitsierak, eta (37)..... itsasoaren gainazalean eragiten dituen uhindurak, hurrenez hurren.